



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ALDUNDIAK “HIRU HILEAN BEHINGO” KONTROLAK EZARRI DITU AGINTALDIKO BIZKAIA EGITEN PLANA EBALUATZEKO

- **Elixabete Etxanobe Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak, legegintzaldi honetako ibilbide-orriaren jarraipenaren eta ebaluazioaren kontrolaren inguruan erantzun deutso Elkarrekin Bizkaiari Bizkaiko Batzar Nagusietan**

(Bilbon, 2021eko garagarriaren 29an) Aldundiak “hiru hilean behin” egiten dau bere agintaldiko planaren kontrola, Elixabete Etxanobe Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan Elkarrekin Bizkaiak egindako galderei erantzunez baieztu dauenez.

Foru-erakundeak Bizkaia Egiten planaren “jarraipena egiteko sistematika argia” jasoten dau. Diputatu Nagusiaren Kabinetearen esku dagon Estrategia Digitalaren eta Korporatiboaren Kabineteak koordinetan dau, foru-sailetako “talde teknikoek” egiten daben informazio-txostenaren bidez. Informazio hori “urtero” argitaratzen da foru gobernuaren gardentasun-kanalean. Foru Gobernuaren politiken “barri emotea” dakar, “informazio argiagaz”, eta zerbitzu publikoaren “ardurea” da, “Gobernuaren ekintza neurtzen eta erabakiak hartzen laguntzen dauelako”, nabarmendu dau Etxanobek.

Diputatuak gogorarazo dauenez, Aldundiak, Garapen Jasangarriko Helburuakaz (GJH) bat datoza 120 jarduketa ezarten ditu Bizkaia Egiten bere estrategian; ekintza horreek hiru ardatzen inguruan egituratzen dira (kostaldea, itsasadarra eta Bizkaia berdea) eta lau esparrutan gauzatzen dira: enpleoa eta jarduera ekonomikoa sortzea eta hobetzea, personak eta aukera-bardintasuna, mobikortasuna eta jasangarritasuna, eta kudeaketa modernoa eta edegia.

Israel Escalante Elkarrekin Bizkaiko ordezkariak zalantzan jarri dau barne kontrol hori, eta horren atzean lan hori egiten dauen aholkulariren bat ete dagon galdetu deutso diputuari. Modu berean, kexau egin da “2020ko abenduko” data dauen azkenengo txostenean ez dagolako 2030 Agendaren ganeko aitamenik, ezta “GJHak beteten diran ala ez” be ez dalako aitatzen. Etxanobek azpimarratu dauenez, agintaldiko planaren betete-mailaren kontrola baliabide “propioakaz” gauzatzen da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

87/2021 FORU DEKRETU ARAUEMOILEA

Bilkura berean, diputatuak iragarri dau Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen dauen 87/2021 Foru Dekretu Arauemoilea “urriaren 18an” sartuko dala indarrean, eta, 23. artikuluan oinarrituta, Batzar Nagusietako taldeei arau-dokumentazio “osoa” bialdu behar jakela, bai foru-arauakaz jasoten dana, bai foru-dekretu arauemoiletan jasoten dana. Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekidea pozik agertu da aldaketa horregaz, izan be, bere taldeak “askotan” eskatu behar izan ditu testu arauemoileakaz batera doazan txostenak.

Beste puntu batean, dekretu barriari jagokonez, Urkaregik Aldundiari eskatu deutso justifika daiala, gitxienez, zergaitik ez diran sartu generoaren arabeko eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostenak zenbait testu arauemoiletan. Etxanobek argitu dauenez, txosten horreek Foru Gobernutik datozen proiektu eta dekretu arauemoile “guztietan” sartzen dira, transposizionoetan izan ezik, ez daukagulako horreetan “arautzeko eskumenik”. Txosten horreek ez egoteak ez dau esan gura dekretuaren idazketan “akatsa” dagonik, “arauen ganeko teknika kontua da”.

AHOLKULARITZA-ENPRESAKAZ EGINDAKO KONTRATUEN ZENBATEKOAK

Beste alde batetik, Aldundiak eta foru-erakundeek 2011. urteaz geroztik aholkularitza-entresakaz dituen “lizitazioen” zenbatekoaren ganean Elkarrekin Bizkaiak ahoz egindako galderari erantzunez, diputatuak urtez urte zerrendatu eta kuantifikatu ditu kontratazino horreek Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean, kontratu txikiak zenbaketan sartu barik.

Foru Gobernuagaz egindako lizitazioei jagokenez, “BEZagaz” esleitutako zenbatekoak 2014ko 266 milioien eta igazko 371 milioien artean dagoz. Foru-erakundeek esleitutakoei jagokenez, zenbatekoak txikiagoak dira: 2014ko 417.000 euro baino gehiagotik hasi eta eta 2019ko 1,4 milioi baino gehiagora. 2021ean, orain arte, Aldundiak “164.477.365 euroko” lanak esleitu deutsez aholkularitza enpresei, eta foru erakundeek 130.680 eurokoak. Hori bai, 2020an, foru erakundeek “27.827.430 euroko” balioa eukon kontratuak esleitu ebezan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

LA DIPUTACIÓN ESTABLECE CONTROLES “TRIMESTRALES” DE EVALUACIÓN DE SU PLAN DE MANDATO BIZKAIA EGITEN

- La diputada foral de Administración Públicas y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe, responde a Elkarrekin Bizkaia en las Juntas Generales de Bizkaia en relación al control de seguimiento y evaluación de la hoja de ruta de la presente legislatura.

(Bilbao, a 29 de julio de 2021) La Diputación realiza un control “trimestral” de su plan de legislatura, según ha confirmado hoy la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe, a preguntas de Elkarrekin Bizkaia en una comisión celebrada hoy en las Juntas Generales de Bizkaia.

La institución foral contempla una “sistemática clara de seguimiento” del plan Bizkaia Egiten que es coordinado por el Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa, adscrita al Gabinete del Diputado General, a través del reporte informativo que realizan “equipos técnicos” de los distintos departamentos forales. Esta información es la que se publica después “anualmente” en el canal de transparencia del ejecutivo foral. Supone “dar cuenta” de las políticas del Gobierno foral “con información de claridad” y es un ejercicio “responsable” del servicio público “que ayuda a medir la acción de Gobierno y a tomar decisiones”, ha destacado Etxanobe.

La Diputación marca en su estrategia Bizkaia Egiten 120 actuaciones alineadas con los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), según ha recordado la diputada; acciones que se articulan en torno a tres ejes (la costa, la ría y la Bizkaia verde) y se desarrollan en cuatro ámbitos: el de la creación y mejora del empleo y la actividad económica, el de las personas y la igualdad de oportunidades, el de la movilidad y sostenibilidad, y el de la gestión moderna y abierta.

El representante de Elkarrekin Bizkaia Israel Escalante ha puesto en duda este control interno y ha preguntado a la diputada si detrás existe alguna consultora que realice este trabajo. Se ha quejado también de que no haya “ni una sola mención” en el último informe emitido, “fechado en diciembre de 2020”, a la Agenda 2030 y “a si se cumplen o no los ODS”. Etxanobe ha insistido en que el control del cumplimiento de este plan de legislatura se desarrolla con recursos “propios”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

DECRETO FORAL NORMATIVO 87/2021

En la misma sesión, la diputada ha anunciado que el Decreto Foral Normativo 87/2021, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, entrará en vigor “el 18 de octubre” y con él, en base a su artículo 23, la obligatoriedad de remitir a los grupos junteros la documentación normativa “completa”, tanto en la que se incluye con las normas forales como con los decretos forales normativos. Arantza Urkaregi, apoderada de EH Bildu, se ha alegrado de esta modificación, ya que “muchas veces” su grupo ha tenido que pedir los informes adjuntos que acompañan a los textos normativos.

En otra cuestión sobre el nuevo decreto, Urkaregi ha pedido a la Diputación que justifique “por lo menos” el motivo por el cual no se incluyen los informes de evaluación previa de impacto en función del género en algunos textos normativos. Etxanobe ha aclarado que estos informes se incluyen en “todos” los proyectos y decretos normativos que emanan del Gobierno foral excepto en los de transposición en donde “carecemos de competencia regulatoria”. La inexistencia de estos informes no suponen que exista un “error” en la redacción del decreto, sino “es una cuestión de técnica normativa”.

IMPORTE DE LOS CONTRATOS CON CONSULTORAS

Por otro lado, y a pregunta oral de Elkarrekin Bizkaia en relación a la cuantía de las “licitaciones” de la Diputación y entes forales con consultoras desde el año 2011, la diputada ha enumerado y cuantificado, año a año, en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, estas contrataciones sin incluir al cómputo los contratos menores.

En lo que respecta a las licitaciones con el Gobierno foral, los importes adjudicados “con IVA” se mueven entre los 266 millones del año 2014, y los 371 millones del año pasado. En lo que respecta a los adjudicados por los entes forales, las cuantías son más exiguas, y van desde los más de 1,4 millones de 2019 a los 417.000 euros de 2014. En lo que llevamos de 2021, la Diputación ha adjudicado a las consultoras trabajos por valor de “164.477.365 euros” y los entes forales por “130.680 euros”. Eso sí, en el año 2020, los entes forales llegaron a adjudicar contratos por “27.827.430 euros”.